



## **AIARAKO UDALAK 2020ko OTSAILAREN 20an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

### **BATZORDEBURUA**

Gentza Alamillo Udaeta jn.

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jn.  
Montse Angulo Solloa and.  
Susana Martín Benavides and.  
José Antonio Bartolomé Pesquera jn.  
Itxaso Gorbeña Allende and.  
Unai Campo Arenaza jn.  
Karmele Población Martínez and.  
José Antonio Gorbea Alonso jn.  
Marian Mendiguren Mendíbil and.  
Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hogeiko otsailaren hogeian, hemeretziak eta hiru direnean, Udalbatza osoa bildu da, ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da burua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria egin die osoko bilkurara bertaratutako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2020ko urtarrilaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.-** Udalbatzak 2020ko urtarrilaren 23an eginiko ohiko bilkuraren aktaren kontu eman da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak hartu du hitza, eta bi iruzkin egin ditu aurreko aktari buruz. Lehenik, esan du idazkera oso nahasgarria dela mozioen puntuetan, zehazki, bozketen emaitzak jasotzen diren ataletan.

Bigarrenik, beste gai bati helduta, esan du bere taldeak teknikari baten agerraldia eskatu duela udalerrian zuntz optikoa hedatzeko prozesua zertan den eta oraindik zer falta den azaltzeko, baina Udalean bertan, eta ez kontzejuetan.

Parte-hartzeak amaituta, aho batez erabaki da aipatutako akta onestea.

**2.- 2020an kultura-, kirol- eta gizarte-dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak.-** Udalbatzari jakinarazi zaio 2020an kultura-, kirol- eta gizarte-dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak prest daudela eta dokumentu horrek Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordearen aldeko irizpena jaso zuela 2020ko otsailaren 11ko saioan. Honako hau da oinarri horien testua, eranskinik gabe:



**“2020AN KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTE-DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**

**I. KAPITULUA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. ARTIKULUA.- OINARRI HAUEN XEDEA.**

*Oinarri orokor hauen xedea da Aiarako Udalak 2020an emango dituen dirulaguntzak esleitzeko prozedura arautzea. Dirulaguntza horiek Aiarako bizilagunentzako jarduera publikoak edo gizarte-interesekoak sustatzeko asmoa duten eskatzaileei emango zaizkie, kultura-, kirol- eta gizarte-arloan dauden udal-jarduerak osatuko dituzten programak garatzeko eskatzen badituzte. Modu horretan, posible izango da Udaleko sailek hainbat jarduketa-eremutan ezarritako xedeak erdiestea.*

*Dirulaguntzak honako hauen guztien menpean egongo dira: udal-dirulaguntzak esleitzeko ordenantza arautzaile orokorra, Aiarako Udalak onetsi zuena; 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzkoa, eta aplikagarria den gainerako legeri osagarria.*

**2. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA-ILDOAK, DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**

*Honako hauek dira interesa duten eskatzaileek dirulaguntzak eskatzeko hauta ditzaketen bi dirulaguntza-ildoak:*

*1.- Gastu arruntak eta inbertsio-gastuak ordaintzeko urteko dirulaguntza. Oinarri honetan diruz lagungarritzat jotako gastuen ehuneko laurogei lagunduko da, gehienez ere.*

*2.- Urtean zehar egiten diren jarduera eta proiektuetatik eratorritako gastuak ordaintzeko dirulaguntza. Oinarri honetan diruz lagungarritzat jotako gastuen ehuneko laurogei arte lagunduko da, gehienez ere, betiere gastuok 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin badira.*

*Halaber, dirulaguntza-ildo horiek bi esparrutan bereiz daitezke: gizarte- eta kultura-jarduerak, batetik, eta kirol-jarduerak, bestetik. Bi esparruetako zenbait kontzeptu lagundu daitezke diruz. Aurrerago zehaztuko dira horiek guztiak.*

**3. ARTIKULUA.- AURREKONTU-ZUZKIDURA.**

*Gastua 2019ko udal-aurrekontuko 330.481.004 partidaren kargura ordainduko da; izan ere, 2020ra luzatu da 2019ko udal-aurrekontua.*

*Partida horren gehieneko kreditua, eta, horrenbestez, dirulaguntza-deialdi honetara bidalitako gehieneko aurrekontu-zuzkidura 35.000,00 eurokoa da.*

**4. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK.**



*Oinarri hauetan, honako hauek arautzen dira:*

#### **4.1.- GASTU ARRUNTAK ETA INBERTSIO-GASTUAK ORDAINTZEKO URTEKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA.**

*Mantentze-lanei dagozkien gastu arruntak lagunduko dira diruz.*

*Edonola ere, elkarte guztiei dirulaguntza bidez ordaindutako gastu arruntek ezingo dute aurrekontu-partidaren % 25 gainditu. Halaber, elkaratek 1.000,00 euro eskatu ahal izango dituzte, gehienez ere, kontzeptu hauengatik guztiengatik:*

- *Lokala garbitzeko, konpontzeko eta mantentzeko gastuak.*
- *Ekipoak eta/edo materiala erosteko gastuak, betiere zuzenean erlazionatuta badaude elkarateak egiten duen jarduerarekin. Ekipoak eta/edo altzariak erosten badira, elkarateak ezingo du kontzeptu berberagatiko dirulaguntzarik eskatu hurrengo lau urteetan, erreferentziatzat deialdi honen urtea hartuta.*
- *Aseguru-gastuak, jarduera zehatzak gauzatzeko kontratatzen direnak izan ezik. Kasu horretan, jardueretarako dirulaguntza-ildoaren bitartez eska daiteke finantzaketa.*
- *Kirol-elkarateen kasuan, txapelketetan aritzeko federazio-fitxen gastuak, interesduna Aiaran erroldatuta badago eta elkarateko kidea bada.*

#### **4.2- URTEAN ZEHAR EGINDAKO JARDUERA ETA PROIEKTUETATIK ERATORRITAKO GASTUAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA.**

*2020an gauzatuko diren jarduera eta proiektuetatik eratorritako gastuak ordaintzeko, gehienez ere 6.000,00 emango dira elkarateko.*

*Dirulaguntza hori AIARAKO biztanle guztiei eskaintzen zaizkien jarduerak finantzatzeko bakarrik erabiliko da, betiere ohiko bitarteko bidez publikizitatea egiten bazaie (udal Whatsapp-a, udal-webgunea eta kartelak).*

*Dirulaguntza jasotzeko, ezinbestekoa izango da eskatzen den informazio guztia eranstea, baita diruz lagundutako jarduerak iragartzeko kartelen ale bana ere. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte kartelak:*

- *Udalaren logoa.*
- *Euskara txertatzeko irizpide linguistikoak (atxikita doaz ezinbestean bete beharreko irizpideak).*
- *Genero-ikuspegia txertatzeko berdintasun-irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).*

*4.2.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira honako kontzeptu hauetatik eratorritakoak:*

**BAI KIROL-ELKARTEETARAKO, BAI KULTURA- ETA GIZARTE-**



### ELKARTEETARAKO

- **Elkarteak berak antolatutako jarduera kolektibo baterako** garraioa.

Honako garraio-gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Autobus bat kontratatetik eratorritako gastuak.
- Garraio publikoa erabiltzetik eratorritako gastuak: autobusa, trena, taxia eta abar.
- Elkarteek auto pribatuetan egindako lekualdatzeetatik eratorritako gastuak, betiere gizarte- eta kultura- edo kirol-ekintzetan parte hartzeko bada eta autoan lau pertsona baldin badoaz, gutxienez. Gehienez ere 0,29 € ordainduko da kilometroko, eta egoitza soziala hartuko da bidaiaren irteera-puntutzat.

Ibilgailuaren gidariaren edo jardueraren antolatzailearen zinpeko adierazpena atxiki beharko da, zeinetan ibilgailuaren matrikula, irteera-puntua (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan doazen pertsonen identifikazioak jasoko baitiren.

- Haurrentzako animazio-jarduerak.
- **Diruz lagundu daitekeen jardueraren bati lotutako** txokolate-janak, luntxak eta merendolak. Gehienez ere 150,00 euro ordainduko dira. Edonola ere, hauek ezin izango dira diruz lagundu: gozokiak, opil industrialak eta edari gaseoso, azukredun edo alkoholdunak, salbuespen bakarrarekin: kirol-probak, glukosa ezinbestekoa bada fisikoki indarberritzeko.
- Jai tradizionalak antolatzea (Olentzero, Erregeen desfilea eta beste batzuk).
- Aiara ardatz nagusi duten lanak formatu digitalean nahiz paperean editatzea. Gehienez ere 500,00 euro ordainduko dira, baldin eta interesdunek lana udalerrian zabaltzeko konpromisoa hartu badute eta ez badute inolako irabazi-asmorik. Dagokion batzordean baloratuko da lanaren gaia eta planteamendua bat datozen oinarri hauetan ezarritakoarekin.
- Elkarteak antolatutako jarduerari lotutako haurtzaindegi-zerbitzuak.
- Prebentziozko baliabideak, ezinbestekoak direnean jardueraren bat gauzatzeko.

#### KIROL-ELKARTEETARAKO

Kirol-txapelketak eta -erakusketak antolatzea, baita mendi-irteerak ere, barne hartuta jarduera antolatzetik eratorritako gastuak eta jardueran emango diren sarietatik eratorritakoak. Jarduera horietan sariak eta garaikurrak ematen direnean (**sariak ezingo du, inola ere, eskudirua izan**) gehienez ere 1.800,00 euro ordainduko dira urtean dirulaguntza bidez.

#### GIZARTE- ETA KULTURA-ELKARTEETARAKO

Gizarte- eta kultura-jarduerak (emanaldiak, antzerkiak, hitzaldiak, arteari eta kulturari lotutako lehiaketak eta elkartearen jarduerarekin zerikusia duten ikastaro eta prestakuntza-tailerrak).

### 4.3.- DIRUZ LAGUNDU EZIN DIREN GASTUAK.

Honako jarduera hauek ezin izango dira diruz lagundu:



- *Otorduak.*
- *Jarduera piroteknikoak.*
- *Jarduera zehatzekin zerikusirik ez duten luntx eta merendolak.*
- *Ez da diruz lagunduko inongo Gabonetako oparirik. Dietak.*
- *Sariak, eskudirua badira.*

#### 5. ARTIKULUA.- ESKATZAILEAK.

5.1.- *Honako hauek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak: 2020an Aiarako udalerrarentzat erabilera edo interes publikoa duten kultura-, kirol- edo gizarte-jarduerak edo programak sustatzeko edo gauzatzeko interesa duten irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta/edo partikularrak, betiere jarraian adierazitako baldintzak betetzen badituzte.*

- *Egoitza soziala edo egoitza Aiara izatea.*
- *Pertsona juridikoa bada, elkartearen estatutuetan berariaz jasota egon beharko da interes orokorra edo zerbitzu publikoa dituela helburu eta irabazi-asmorik gabe sortua dela.*
- *Agiri bidez egiaztatu ahal izatea udal-erregistroan egunean dituela betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak.*
- *Elkatearen jarduketa-esparrua Aiara izatea.*
- ***EZ** egotea sartuta dirulaguntzen onuradun izateko inongo debekutan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) 13. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.*

5.1.2- *Halaber, onuradun izan daitezke Etxaurren ikastolako eta Aiarako gainerako ikastetxeetako gurasoen elkarteak, betiere diruz lagundu nahi diren jarduerak deialdiarekin bat badatoz eta eskolako eremu akademikotik kanpo antolatzen badira. Salbuespen bakarra izango da eskola-komunitatearekin batera ateratzea Olentzeroren egunean eta Inauterietan. Hortaz, azken biak diruz lagungarriak izango dira eremu akademikoan egin arren.*

5.1.3- *Era berean, administrazio-batzarrek ere dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Olentzero eta Erregeen desfilerako, betiere jardueren helburuak deialdiaren helburuekin bat badatoz.*

5.2.- *Debekuak: Ezingo dute dirulaguntzarik eskatu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elkarte edo erakundeak.*

#### 6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAK.

6.1- *Eskabideak aurkezteko hilabete (1) izango da, oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik zenbatzen hasita.*

6.2- *Informazioa eta eskabideak izapidetzea. Udal-webgunean izango da eskuragarri deialdi honi dagokion informazio oro: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus).*

*Halaber, eskabideak Aiarako udaletxean jaso eta entregatu ahal izango dira.*



### 6.3- Aurkeztu beharreko agiriak.

#### 6.3.1- Eskabideak pertsona fisikoek aurkezten badituzte:

- NANaren fotokopia (oraindik udaletxean aurkeztu ez bada).
- Zinpeko adierazpena, elkartea mantentzeko edo jarduera zehatz hori gauzatzeko beste erakunde publiko edo pribaturen bati eskatutako eta/edo jasotako bestelako dirulaguntzei buruz. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman den edo ez zehaztu beharko dira.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko zorrak egunean dituelako ziurtagiria, eskumena duen administrazioak emana, edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Udalak hura ordezkatu eta eskumena duen administrazioari eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko zergak egunean dituelako ziurtagiria eska diezaion (4. eranskina).

#### 6.3.2- Eskabideak elkarrekin aurkezten badituzte:

- Eskabidea sinatzen duenaren NANA, eskabidea bere izenean zein elkarrekin ordezkari gisa aurkeztuta (oraindik udaletxean aurkeztu ez bada).
- Elkarrekin IFZren fotokopia, aurretiaz udaletxean aurkeztu ez bada.
- Elkartea ez baldin badago Aiarako Elkarrekin Udal Erregistroan, eskabidea egiteko momentuan inskribatu beharko da. Hartara, agiri hauek aurkeztu beharko ditu: erakundearen estatutuen fotokopia, erakundea legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin Erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiria eta IFZren ziurtagiria.

### 6.4.- Eskabidea.

#### 1. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Gastu arruntak eta inbertsio-gastuak ordaintzera bideratutako urteko dirulaguntza eskatzeko, 2. eranskina ere aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Jarduerak egitera bideratutako dirulaguntza eskatzeko, 3. eta 3.1 eranskinak ere aurkeztu beharko dira, goian aipatutakoez gain. Zehazki, 3.1 dokumentua urtean zehar egin nahi diren jarduera edo ekintza beste inprimaki aurkeztuko dira, behar bezala beteta.

#### 4. eranskina ere aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Halaber, eskabide guztietan hartuko da aintzat jasoko den finantzaketaren guztirakoa, barne hartuta dirulaguntzak, beste iturri batzuetatik etorritako finantzaketak eta bestelako administrazio edo erakundeek emandako dirulaguntzak. Laguntzak eta parte-hartzaileen ekarpenak ere hartuko dira aintzat, eta horiekin guztiekin ezingo da, inola ere, aurkeztutako programaren kostua gainditu.

Diru-sarrera horiek guztiak ere diru-sarrera gisa sailkatu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko kontuan.

Udalak nahi beste azalpen eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea ahalik eta egokien baloratze aldera.





*Eskabidea ez baldin badago behar bezala dokumentatuta edo goian aipatutako daturen bat edo agiriren bat falta bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko. Halaber, jakinaraziko zaio, akatsak epearen barruan ez zuzentzekotan, eskabidea artxibatu egingo dela, bestelako izapiderik egin gabe.*

## **7. ARTIKULUA.- PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA EGITEA.**

*Dirulaguntzaren onuradun guztiek, hala banakakoek nola erakundeek, publiko egin beharko dute udal-finantzaketa jaso dutela. Hartara, Udalaren logoa erabiliko dute sortzen dituzten material inprimatuetan (kartelak, eskuorriak, informazio-orriak...), bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko hedabideetan argitaratzen dituzten iragarki guztietan. Horretarako, Aiarako Udalak emango die pertsona eta erakunde interesdunei udal-logoa.*

*Halaber, beti errespetatuko da euskararen erabilerari buruzko udal-ordenantza bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiliko diren kartel, testu eta dokumentuetan.*

*Horrez gain, nahitaezkoa izango da genero-ikuspegia aintzat hartzeko berdintasun-irizpideak ere txertatzea. (Hizkera eta irudi inklusiboak).*

*Edonola ere, jarduera gauzatu aurretik egin beharko da Airako Udalak diruz lagundutako jardueren gaineko publizitatea, interesdunek bertan parte hartzeko aukera izan dezaten. Gainera, jarduerak gauzatu baino zazpi egun lehenago jakinarazi beharko zaio Udalari jarduerak zein egunetan egingo diren, Udalak egokitzen jotzen dituen bitartekoen bidez emateko horien berri.*

## **8. ARTIKULUA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**

*Honako hauek dira banako edo erakunde onuradunaren betebeharrak:*

- *Helburua betetzea, proiektua exekutatzea, jarduera gauzatzea edo dirulaguntza jasotzea arrazoitzen duen jokabidea izatea.*
- *Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea. Era berean, justifikatu egin beharko da bete egin dela dirulaguntza jasotzea ahalbidetu duen helburua.*
- *Ez jartzea eragozpenik dirulaguntza eman duen kontrol-organoak egin behar dituen egiaztatze guztiak egin eta eskumena duten estatuko eta erkidegoko kontrol-organoek egin ditzaketen egiaztatze- eta finantza-kontrolak gauzatzeko. Hartara, egintza horiek betetzean eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.*
- *Organo emaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera horiek gauzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edota baliabideak jaso direla. Jakinarazpen hori berau ezagutu bezain laster egin behar da, eta, edozein kasutan, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen.*
- *Dirulaguntzaren emate-ebazpena egin baino lehen egiaztatzea interesdunak egunean dituela Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.*



- *Jasotako funtsak erabili egin direla egiaztatzen duten frogagiriak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, horietan erabili ahal direlako egiaztapenak eta kontrolak egiteko.*
- *Programa edo jarduera Aiarako Udaleko euskararen ordenantzan ezarritakoaren arabera gauzatzea.*
- *Berdintasun-irizpideak betetzea jardueretan eta karteletan; horretarako, hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko dira. Udalak horretan lagunduko die onuradunei, eta prestakuntza eta laguntza teknikoak emango die elkarteei berdintasunaren arloan.*
- *Udalak elkarteak banan-banan eta adostasunaren bitartez laguntzeko prozesuaren barruan antolatzen dituen berdintasunaren arloko prestakuntza-jardueretara bertaratzea, helburu hauekin:*
  - *Hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzea.*
  - *Estatutuak aldatzea, genero-ikuspegia har dezaten.*
  - *Zuzendaritza-batzarrak aldatzea, paritarioak izan daitezten.*
  - *Indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea elkarteen jardueretan.*

#### 9. ARTIKULUA.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK.

*Honako irizpide hauek hartuko dira aintzat dirulaguntzak emateko:*

- *Proiektuaren irismena (hau da, jarduerak zenbat onuradun izango dituen).*
- *Erakunde eskatzaileak bere jarduketa-esparruan erakutsitako jarraitutasuna eta egonkortasuna.*
- *Jarduerak euskaraz egitea.*
- *Eskatzaileak beste finantzaketa-baliabide batzuk eskuratzeko dituen zailtasunak, baita erakundeak eskatutako zenbatekoarekiko dituen baliabide ekonomikoak eta bitartekoak, eta finantzaketa-iturriak bilatzeko esfortzua ere.*
- *Programaren eta aurkeztutako jardueren bideragarritasuna.*
- *Aurkeztutako balantze ekonomikoa.*
- *Berdintasun- eta aniztasun-irizpideak, kasu hauetan: Diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak genero-ikuspegia hartzen badu diagnostikoan, helburuetan, jardueraren garapenean edo justifikazio-memorian.*
  - *Jardueran bertan hartzen badira aintzat emakumeen egoera, beharrian, interes, itxaropen eta arazo espezifikokoak.*
  - *Jarduerak estereotipoak eta genero-rolak aldatu nahi baditu, bereziki.*
  - *Jarduerak gizonen zaintza-lanak egitea edo aiten eta seme-alaben arteko ekintzak sustatzen baditu.*
  - *Jarduerak seme-alaben zaintza partekatua aurreikusten badu, betiere amek zein aitek parte hartu ahal badute eta jarduera eta bizitza pertsonala eta familia-bizitza bateratzea ahalbidetuko duten ordutegietan eta tokietan egiten bada. Onuradunen % 40, gutxienez, emakumeak badira.*

#### 10. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAK EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA.

*Alkate-udalburua izango da dirulaguntza emateko organo eskuduna. Edonola ere, kultur teknikariaren txostena jasoko du ebazpena egin baino lehen, eta ebazpena egin eta gero, dagokion informazio-batzordean eman beharko du bere erabakiaren berri.*





## 11 ARTIKULUA.- EBAZPENA EGIN ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

*Eskabideak ebatzi eta ebazpenak banako edo erakunde eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.*

## 12. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA.

### *12.1 Dirulaguntzak justifikatzeko epea.*

*Banako edo erakunde eskatzaileek 2021eko urtarrilaren 31n aurkeztuko dute, beranduenez, dirulaguntzaren justifikazioa. Epe horretan, dirulaguntza-ildoetan jasotako kontzeptuengatik faktura guztiak aurkeztu beharko dira, baita egindako eskabideari dagozkion eranskinak ere, behar bezala beteta eta sinatuta.*

### *12.2 Dirulaguntzak justifikatzea.*

*Dirulaguntza jasotzeko aurkeztu den zenbatekoaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez bakarrik Udalak emandako zenbatekoarena, Dirulaguntzen Lege Orokorrak (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) ezarritakoari jarraikiz.*

### *12.3 Justifikazio-sistema.*

*Justifikazio gisa, honako hauek aurkeztu beharko dira:*

- *5. eranskina banako edo erakunde eskatzaile guztiek aurkeztu beharko dute.*
- *6. eranskina gastu arruntak eskatu dituzten elkarteek aurkeztu beharko dute.*
- *7. eranskina banako edo erakunde eskatzaile guztiek aurkeztu beharko dute. Inprimaki bana entregatu beharko da gauzatutako jarduera bakoitzeko, behar bezala beteta.*
- *Kilometrajea justifikatzeko: 8. eranskina aurkeztu beharko dute garraio-gastuetarako dirulaguntza eskatu duten banako eta erakundeek. Hartara, ibilgailuaren gidariaren edo jardueraren antolatzailearen zinpeko adierazpena atxiki beharko da, zinetan ibilgailuaren matrikula, irteera-puntua (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan doazen pertsonen identifikazioa jasoko baitiren.
  - a) *Antolatzailea dagoenean: elkarteak ekitaldira bertaratu delako egiaztagiria aurkeztu beharko da, baita elkarteak berak egindako dokumentu bat ere; bertan, ibilgailuaren matrikula, irteera-puntua (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan joan direnen identifikazioa jasoko dira. Hartara, haien izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi beharko dira, eta denek sinatu beharko dute.*
  - Antolatzaileak ez dagoenean: elkarteak berak egindako dokumentu bat aurkeztu beharko da; bertan, ibilgailuaren matrikula, irteera-puntua (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan joan direnen identifikazioa jasoko dira. Hartara, haien izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi beharko dira, eta denek sinatu beharko dute.**
- *Egindako gastuen jatorrizko fakturak eta fotokopia konpultsatuak. Federazio-fitxen kasuan, dirulaguntza eskatu zaien pertsonen zerrenda.*



- *Ordainagiriak (faktura eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa da dagokion saltokiak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilua jartzea, eskuz sinatuta, edo enpresariak faktura eskudirutan ordaindu zaiola adierazten duen idatzi bat sinatzea, faktura identifikatuta). Banku-transferentzia bidez ordaintzen bada, ordainagiria erantsi beharko da; 2.500,00 eurotik gorako ordainketa guztiak banku-transferentzia bidez egin behar dira nahitaez.*
- *Jarduera ezagutzera emateko erabili den kartel, eskuorri edo dena delakoaren ale bat.*
- *Baldin eta Aiarako Udalak diruz lagundutako elkarteren batek dirulaguntza jaso eta gero jakiten badu beste organismo publiko eta/edo pribatu batek beste dirulaguntza bat eman diola eta dirulaguntza horren zenbatekoa, berehala aurkeztu beharko du Udalean dirulaguntza emango dion erakundea eta jasoko duen zenbatekoa argi eta garbi adieraziko dituen adierazpen bat, behar bezala sinatuta, diruz lagundutako gaindikina Udal Diruzaintzari itzultzeko.*
- *Aurkeztutako faktura guztien baturak ez bada aurkeztutako aurrekontuaren % 100 estaltzen edo diruz lagun zitekeen proiektua edo jarduera gauzaten ez bada, onuradunak Udalari jakinarazi beharko dio, Udal Diruzaintzari ordaindutako zenbatekoak itzultzeko edo, hala badagokio, emandako dirulaguntza murrizteko.*

#### *12.4 Ez justifikatzea edo behar beste ez justifikatzea.*

*Justifikatzeko betebeharra erabat edo partzialki ez betetzeak berekin ekarri du jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharra, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. atalean ezarritakoari jarraikiz.*

#### 13. ARTIKULUA.- ORDAINTZEA.

*Emandako dirulaguntza bi ordainketatan jasoko dute onuradunek:*

- *Lehenengoa dirulaguntzaren ebazpena egiten denean jasoko dute, eta guztirakoaren % 80 ordainduko da. Bigarrena aurreko puntuan aipatutako justifikazioa aurkeztu eta gero ordainduko da.*

#### 14. ARTIKULUA.- EZ-BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.

*Onuradunak dirulaguntzak jasotzeko oinarri hauetan edo udal-dirulaguntzen ordenantza arautzailean ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, edo nahitaez aurkeztu beharreko datuak eta dokumentuak faltsutu edo ezkututzen badira, dirulaguntzan atzera egin eta, hala badagokio, bidegabe ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko da.*

#### 15. ARTIKULUA.- GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

*Oinarri hauen interpretazioan edozein zalantza sortzen bada, alkateak ebatziko du, alde zuzenetik dagokion informazio-batzordearen txostena jasota.*

*Oinarri hauetan aurreikusitako guztia Aiarako Udaleko Udal Dirulaguntzen Ordenantza Arautzailearen menpean egongo da.”*

*Alkate jaunak esan du elkarteei jakinaraziko dietela deialdia argitaratuko dela, eskabideak aurkez ditzaten.*



Kultura, Kirola eta Gazteria Sailak aldeko irizpena eman zien oinarri horiei 2020ko otsailaren 11ko saioan.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta esan du, batzordean adierazi zuen bezalaxe, ados dagoela oinarriekin, baina elkarreak edari alkoholduak baztertzea derrigortzen badituzte, Udalak ere murrizketa hori bera aplikatu beharko diola bere buruari, eta, beraz, ez duela alkoholdu edaririk zerbitzatu behar berak antolatutako luntxetan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du Udalak luze daramala luntxik antolatu gabe; dena den, halaxe egingo da.

Alkate jaunak esan du elkarteei jakinaraziko dietela deialdia argitaratuko dela, eskabideak aurkez ditzaten.

Marian Mendiguren Mendivil zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du bere taldea abstenitu egingo dela; izan ere, ados daude proposatutako oinarriekin, baina ez daude ados proposatutako aurrekontu-zuzkidurarekin. Horregatik, uste dute premiazkoa dela udal-aurrekontuak aurkeztea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio aurrekontuei buruzko eztabaidan aukera izango dela aurrekontu-partidak handitzeko, murrizteko eta ezabatzeko proposamenak egiteko.

Marian Mendiguren Mendivil zinegotzi andreak (EH Bildu) galdetu du eztabaida horretan kultura-arloan ekarpenak egiteko aukera izango duten.

Alkate jaunak erantzun dio aldaketak proposatu ahal izango dituztela, baina ez kalitatearen kaltetan.

Marian Mendiguren Mendivil zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du, edonola ere, abstenitu egingo direla.

Udalbatza horren guztiaren jakitun geratu da, eta honako hau erabaki du EAJ-PNV eta AIARA BATUZ udal-taldeetako kideen aldeko botoekin eta EH Bildu udal-taldeko kideen abstentzioarekin:

**LEHENENGOA.-** Onestea kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzak emateko 2020ko deialdia.

**BIGARRENA.-** Onestea Aiarako kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzak araupetuko dituzten oinarriak, goian transkribatuta daudenak.

**HIRUGARRENA.-** Argitaratzea deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

**LAUGARRENA.-** Publizitatea ematea goiko oinarriei. Hartara, testua osorik argitaratuko da ALHAOn, iragarki bidez, baita Udaleko iragarki-oholean eta udal-webgunean ere.



**3.- EH-Bildu udal-taldearen mozioa, ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeari eta abiarazteari buruzkoa.**- EH-Bilduk aurkeztutako mozioaren berri eman zaio Udalbatzari. Zehazki, ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeari eta abiarazteari buruzkoa da.

**“EH BILDU UDAL-TALDEAREN MOZIOA, USTELKERIA PERTSEGITZEKO BEHARREZKOAK DIREN TRESNA INSTITUZIONAL INDEPENDENTEAK SORTZEARI ETA ABIARAZTEARI BURUZKOA.**

*2018ko irailean erregistratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean “Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege-proposamena”.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak lege-proposamena izapidetzearen aldeko txostena egin zuen 2018ko irailaren 23an, baina hiru foru-aldundiek kontra egin zioten eta izapidetzea blokeatzen saiatu ziren. Horretarako, errekurtsio bana aurkeztu zioten Ebazpen Batzordeari, eta hark errekurtsiook izapidetzea onartu zuen 2019ko martxoan.*

*2019ko ekainean jakinarazi zuen Ebazpen Batzordeak aurkeztutako errekurtsoei dagokienez hartutako erabakia, eta lege-proposamena Legebiltzar berriari helarazi zion; zehazki, Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordeari. Orduetik, lege-proposamena blokeatuta dago batzorde horretan, eta ez da urratsik egin proposamenaren izapidetzea berraktibatzeke.*

*Hori guztia ustelkeriaren arloko azken epaien larritasunaren aurrean. Besteak beste, bereziki aipagarria da Arabako Probintzia Auzitegiaren 2019ko abenduaren 17ko Epaia, baina ez da azkenaldian izan den ustelkeria-kasu bakarra. Gainera, badirudi utzikeria dagoela ustelkeriari eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioetako jardunbide desegokiei aurre egiteko mekanismo independente eta eraginkorrak abiarazteari dagokionez. Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal-taldeak honako puntu hauek aurkezten dizkio Aiarako Udalbatzari, eztabaidatu eta onetsi ditzan:*

*1- Aiarako Udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eskatzen dio “Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege-proposamenaren” izapideak azkartzeko eta denboran ez luzatzeko, XI. legegintzaldi hau bukatu baino lehen onetsi ahal izan dadin.*

*2- Aiarako Udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza sortzeko eskatzen du, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailari eskatzen dio ustelkeria-kasurik eraginkortasunez aztertu, bere funtzioetan hobeto jardun eta diru publikoaren erabilera bidegabe eta legez kanpokoaren kontra borrokatzeko ezinbestekoak diren giza baliabide eta baliabide materialak emateko fiskaltza horri.*

*3- Aiarako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Ertzaintzaren barruan ustelkeriaren aurka jardungo duen unitate espezializatu bat sortzeko eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak otsailaren 28ko saioan onetsi zuenari jarraikiz, berehala handitzeko Ertzaintzak ustelkeria-kasuetara bideratutako baliabide materialak eta giza baliabideak, baita horrelako delituak ikertzen dabiltzan agente-kopurua ere, betiere horretarako beharrezkoak diren prestakuntza eta kualifikazioa bermatuz.*



*4- Mozio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari helaraziko zaie, baita Lan eta Justizia eta Segurtasun sailei ere".*

Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrak mozioaren aldeko irizpena eman zuen 2020ko otsailaren 11ko saioan, EH Bildu udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin eta EAJ-PNV eta AIARA BATUZ udal-taldeetako ordezkarien abstentzioarekin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza, eta esan du azaldutakoa ez zela aurreko osoko bilkurako mozioan gehitu. Dagoeneko deituta daude hurrengo hauteskundeak, eta, beraz, bertan behera geratu da dena. Gauzak horrela, ezin da jakin adierazitako lege-proposamena izapidetuko den edo ez. Azaldu du Euskal Autonomia Erkidegoan Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltza bat sortu, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak eman eta Ertzaintzaren barruan delitu horiek pertsegitzera bideratutako unitate espezializatu bat eratzeko eskatzen zela mozio horretan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio hauteskundeen ostean ekingo diotela berriz aurretiaz hasitako izapideei.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) jakinarazi du irakurri gabe zeukala EAJ-PNVren zuzenketa (batzordean ere aipatu zuen), eta EH BILDUREN mozioaren alde dagoela.

Udalbatza horren guztiaren jakitun geratu da, eta EH BILDUK aurkeztutako mozioa, ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeari eta abiarazteari buruzkoa, ezestea erabaki du EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien kontrako botoekin eta EH Bildu udal-taldeko ordezkarien eta AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkariaren aldeko botoekin.

**4.- EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketa, EH BilduK ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeko eta abiarazteko mozioari.** EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako zuzenketaren berri eman zaio Udalbatzari. Zehazki, ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeko eta abiarazteko EH Bilduk aurkeztutako mozioari dagokio. Honako hau dio:

**“EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketa EH Bildu udal-taldeak ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeari eta abiarazteari buruz egindako mozioari.**

*Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EH Bilduk ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeari eta abiarazteari buruz aurkeztutako mozioari egindako ZUZENKETA hau aurkeztu du.*

### **ZUZENKETA**

*1.- Aiarako Udalak Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailari eskatzen die lanean jarraitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko fiskaltzan delitu ekonomikoetan,*





*eta, batez ere, ustelkeriaren kontra espezializatutako kide gehiago izan ditzan, delitu ekonomikoetarako fiskal delegatuaren figura sortuz.*

*2.- Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailari eskatzen dio figura hori sortu arte, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskaltzari egokitzat jotzen dituen baliabide materialak eta giza baliabideak ematen jarraitzeko, bere eskumenen esparruan betiere, fiskaltzak funtzioetan hobeto jardun eta diru publikoa helburu pribatuetarako modu bidegabe eta legez kanpokoan erabiltzearen aurka borrokatzeko.*

*3.- Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritza animatzen du ustelkeria-delituak pertsegitzen dituen Ertzaintzako taldearen lana babesten jarraitzera, horretarako agenteei arlo horretan egiten duten lanean aurrera egitea ahalbidetuko dien prestakuntza eta baliabide tekniko eta materialak emanaz.*

*Arespalditzan, 2020ko otsailaren 6an”.*

Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek mozioaren aldeko irizpena eman zuen 2020ko otsailaren 11ko saioan, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin, EH Bildu udal-taldeko ordezkarien kontrako botoarekin eta AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkariaren abstentzioarekin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta esan du Eusko Legebiltzarrean hasita daudela lanean dagoeneko; zehazki, ebazpen-batzorde batean hasi dira gaia jorratzen, eta hauteskundeen ostean helduko diote berriz kontu honi. Horrez gain, esan du Ertzaintzak badaukala ustelkeriaren kontrako unitate espezializatu bat, eta animatu egiten dutela Eusko Jaurlaritza unitate horri babesa ematen jarraitzera, hartara beharrezkoak diren baliabide material eta teknikoak emanaz. Azkenik, aditzera eman du zuzenketa hau Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaiola, aintzat har dezaten.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, zuzenketaren kontra bozkatuko duela iragartzeko; izan ere, “animatu” egiten da Eusko Jaurlaritza, baina bere taldearen iritziz, animatzeari utzi eta eskatzen hasteko garaia da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du bere taldeko ordezkariak ere kontra bozkatuko dutela, proposamena ez delako zehatza, eta, gainera, uste dutelako unitate bat egon badagoen arren, ez dutela ustelkeria bezain espezifikokoak diren delituak jorratzeko aukerarik izango dutenik horretarako tresna zehatzak ematen ez baldin bazaizkie.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du ez duela uste lan horiek egiten dituztenek ondo hartuko dutenik beren jarduna zalantzan jartzea.

Udalbatza goian adierazitakoaren jakitun geratu da, eta EAJ-PNVk ustelkeria pertsegitzeko beharrezkoak diren tresna instituzional independenteak sortzeko eta abiarazteko EH Bilduk aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa onestea erabaki da, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoekin eta EH Bildu eta AIARA BATUZ udal-taldeetako ordezkarien kontrako botoarekin. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio, dagozkion ondorioak izan ditzan.





**5.- Erregistro zibilei buruzko mozioa.-** Udalbatzari jakinarazi zaio EAJ-PNV udal-taldeak erregistro zibilei buruzko mozio bat aurkeztu zuela Udalean eta EH Bildu udal-taldeak zuzenketa bat egin ziola mozio horri. Bi horiek aztertuta, Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek 2020ko otsailaren 11ko saioan erabaki zuen aldeko irizpena ematea alderdi biek egindako ekarpenak jasotzen dituen mozio bakarra Udalbatzari aurkezteko, hala badagokio, onets dezan.

Udalbatza horren jakitun geratu da eta ohiko bozketa eginda, aho batez erabaki du erregistro zibilei buruzko mozioa onestea. Honako hau dio:

#### **“ZIOEN AZALPENA**

Datorren 2020ko ekainaren 30ean sartuko da indarrean Erregistro zibilei buruzko 20/2011 Legea.

Lege horretan xedatzen da itxi egingo direla udalerrri txiki eta ertainetako erregistro zibilak, eta, beraz, Aiaratik kanpo eramango dira 1871tik gaur egunera arteko historia kontatzen duten gure udalerrriko jaiotza-, ezkontza- eta heriotza-liburuak.

Argi eta garbi dago Aiarako herritarrei kalte egingo zaiela; izan ere, galdu egingo dituzte hurbileko zerbitzua eta zuzeneko arreta. Gauzak horrela, beste bitarteko batzuk erabili beharko ditugu guztiok gaur egun gure udalerrian dauzkagun dokumentu ofizialak atzitzeko.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

#### **MOZIOA**

1. Aiarako Udalbatza uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuaren kontra dago.
2. Aiarako Udalbatzak uste du beharrezkoa dela egungo Erregistro Zibileko bulegoak jarraitzea gure udalerrriko Erregistro Zibila kudeatzen, baita egun herritarrei eskaintzen diegun zerbitzu publiko, moderno eta doakoa mantentzea ere.
3. Aiarako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Erregistro Publikoen gaineko eskumena (149.1.8 CE) Eusko Jaurlearitzari eskuordetzeko. Aiarako Udalak Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzari eta Espainiako Justizia Ministerioari helaraziko die mozio hau.
5. Aiarako Udala erregistro zibila eta justizia-administrazioa pribatizatzeke saiakera ororen aurka dago”.

**6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udaleko Informazio Batzordeen Funtzionamendua Arautzeko Erregelamendu Organikoa.** Aiarako Udaleko Informazio Batzordeen Funtzionamendua Arautzeko Erregelamendu Organikoari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari:

#### **“UDALBATZARI AURKEZTUTAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

*IKUSI DA.- Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikuluari jarraikiz, Udalbatzak interesa du, erregelamendu organiko honen bitartez, Aiarako Udalean egiten diren informazio-batzordeak publiko bilakatzeko eta organo osagarri horien funtzionamendua arautzeko, herritarrek batzordeetan parte hartzeko aukera izango dutenez gero.*



***IKUSI DA.-** Informazio Batzordeen Funtzionamendua Arautzeko Erregelamendu Organikoaren proposamena.*

*Hori guztia dela eta, Udalbatzari proposatzen zaio honako **ERABAKI** hau har dezala:*

***LEHENENGOA.-** Hasiara batean onestea Aiarako Udaleko Informazio Batzordeen Funtzionamendua Arautzeko Erregelamendua. Honako hau da proposatutako testua:*

**“AIARAKO UDALEAN INFORMAZIO-BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDU ORGANIKOAREN PROPOSAMENA**

*Konstituzioaren 9.2 artikulua herritarrak eguneroko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzeko gai izango direla bermatzera derrigortzen ditu botere publikoak, eta hori berretsi egiten da testu horretako 23. artikuluan; izan ere, bertan ezartzen da herritarrei bermatu egingo zaiela gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo ordezkarien bitartez.*

*Halaber, Toki Araubideko Oinarrien Legeko 69.1 artikuluan ezartzen da toki-erakundeek ahal beste informazio emango dietela herritarrei beren jarduerari buruz eta bermatu egingo dutela herritar guztien parte-hartzea.*

*Horrez gain, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aurreikusten du udalek beren burua antolatzeke gaitasuna izan dezaketela, Tokiko Autonomiari buruzko Europako Gutunean ezarritakoari jarraikiz, horrela, beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren antolakuntza eta egitura administratibo eta instrumentalak ezarri ahal izateko. Horregatik, eta ahalmen horrekin bat eginez, idatzi da informazio-batzordeak publiko bilakatzeko xedea duen erregelamendu hau, informazio-batzordeetan herritarren parte-hartzea aintzat hartuko duen funtzionamendua izan dezaten.*

**ERREGELAMENDUAREN XEDEA**

*Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 30.3 artikuluari jarraikiz, Udalbatzak interesa du, erregelamendu organiko honen bitartez, Aiarako Udalean egiten diren informazio-batzordeak publiko bilakatzeko eta organo osagarri horien funtzionamendua arautzeko, herritarrek batzordeetan parte hartzeko aukera izango dutenez gero.*

**2.- INFORMAZIO-BATZORDEEN IZAERA PUBLIKOA.**

*Informazio-batzordeen saioak publikoak dira.*

*Alabaina, Konstituzioaren 18.1 artikuluan aipatzen den pertsonen oinarritzko eskubideei eragin diezaieketen gaietan, sekretuak izan daitezke eztabaida eta bozketa, baldin eta dagokion batzordeko kideen gehiengo osoak hala erabakitzen badu.*

*Edozein kasutan, informazio-batzordeak irudi edo ahots bidez grabatzen badira eta batzordean norberaren edo familiaren intimitateari, ohoreari edo norberaren irudiari eragin ahal dioten gaiak jorratzen badira, batzordeko presidenteak grabazioa bertan behera uzteko eskatuko du gai horiek lantzen diren bitartean, herritarren oinarritzko eskubideak babestu eta*



*datu pertsonalak babesteko legeria betetze aldera. Batzordearen grabazioa idazkariari akta egiten laguntzeko erabiliko da, baina ez da, inola ere, sarbide publikokoa izango.*

*Horrenbestez, informazio-batzordeetako aktak ez dira publikoak izango.*

### **3.- INFORMAZIO-BATZORDEAK EGITEKO TOKIA.**

*Informazio-batzordeak toki egokian egingo dira, hau da: aretoak edukiera egokia izan behar du, eta, horrez gain, baita grabatzeko edo erreproduzitzeko eta aldibereko interpretazioa egiteko aukera eman ere, hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.*

### **4.- INFORMAZIO-BATZORDEETARAKO DEIALDIAK.**

*Informazio-batzordeen deialdiak eta gai-zerrendak Udaleko iragarki-oholean eta udal-webgunean argitaratuko dira.*

### **5.- BATZORDEETARA BERTARATU NAHI DUEN PUBLIKOAREN PARTE-HARTZEAK.**

*1. Norbaitek dagokion informazio-batzordearen aurrean agertu nahi badu gai-zerrendako punturen bati buruz hitz egiteko administrazio-izapideetan interesdun gisa jardun duelako, informazio-batzorde horretako presidenteari eskatu beharko dio baimena saioa hasi baino lehen. Presidentearen baimenarekin eta ordezkari bakar baten bidez, gehienez ere bost minutu izango ditu bere iritzia emateko, gai-zerrendan sartutako proposamena aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu aurretik, betiere.*

*2. Ohiko informazio-batzordea bukatuta, eta, beraz, batzordeko idazkariaren laguntzaren beharrik gabe, presidenteak, publikoak eskatzen badio, galdera-erantzunen txanda bat antolatu ahal izango du udal-interesekoak diren gaiak jorratzeko. Edonola ere, bost minutuko agerraldiak izango dira, gehienez ere. Batzordeko presidenteari dagokio txanda horiek antolatzea eta bukatutzat ematea.*

### **6.- ARAUDI APLIKAGARRIA**

*Erregelamenduan aurreikusita ez dagoen guztian informazio-batzordeen funtzionamenduari buruzko xedapenak jasotzen dituzten honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 1986ko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Toki Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua, eta gainerako xedapen aplikagarriak.*

### **AZKEN XEDAPENA**

*Erregelamendu hau osorik argitaratuko da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta indarraldia Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikulua aipatzen duen epea igaro ondoren hasiko da, lege horretako 70.2 artikuluan aipatutakoari jarraikiz.*



**BIGARRENA.-** *Jendaurrean ikusgai egoteko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak eta, hala badagokio, Udalbatzak aztertu egingo ditu behin betiko erabakia onartu aurretik. Hasierako onepenenaren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.*

**HIRUGARRENA.-** *Erabaki hau eta erregelamenduaren testu osoa ALHAOn argitaratzeko agintzea.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta. Elektronikoki sinatutako agiria”.*

Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek aldeko irizpena eman zion 2020ko otsailaren 11ko saioan Udalbatzak erabaki hori onesteari, hala badagokio.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza, eta esan du batzordeetara bertaraten den publikoaren parte-hartzeak antolatzeke araubidearen 5. artikulua honako hau xedatzen duela: 1. “Norbaitek dagokion informazio-batzordearen aurrean agertu nahi badu gai-zerrendako punturen bati buruz hitz egiteko administrazio-izapideetan interesdun gisa jardun duelako, informazio-batzorde horretako presidenteari eskatu beharko dio baimena saioa hasi baino lehen. Presidenteari baimenarekin eta ordezkari bakar baten bidez, gehienez ere bost minutu izango ditu bere iritzia emateko, gai-zerrendan sartutako proposamena aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu aurretik, betiere.” Horren harira, bere alderdiak uste du batzorde osoari eskatu behar zaiola baimena, kide guztiak horren jakitun gera daitezen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du idazkera hori bat datorrela informazio-batzordeen legearekin; izan ere, batzordeon zuzendaritza eta antolakuntza presidenteei dagokie.

Jarraian, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) esan du parte-hartzeak bost minutukoak direla, gehienez, eta, haien ustez, malguagoak izan beharko lirakeela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du denbora-muga jakin bat ezarri behar dela antolakuntza-arrazoia direla bide; dena den, batzorde bakoitzean aztertuko da zein den jardunbiderik egokiena.

Marian Mendigure Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) gehitu du, kasu batzuetan parte-hartze bat baino gehiago egin beharko direla, agian. Horregatik, uste dute aukera hori ere zabalik utzi behar dela.

Udalbatza horren guztiaren jakitun geratu da, eta ohiko bozketa eginda, aho batez erabaki du onestea goian hitzez hitz transkribatutako erabaki-proposamena.

**7.- 2020an Aiarako Udalako langileen eta alkatearen ordainsaria igotzeko erabaki-proposamena.-** Jarraian, 2020an alkateari eta enplegatu publikoei ordainsaria igotzeari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hain zuzen ere, honako hau:



## **"ERABAKI-PROPOSAMENA**

**AINTZAT HARTU DA.-** 2020ko urtarrilaren 22an, urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen.

**AINTZAT HARTU DA.-** Errege-lege dekretu horrek langile publikoen ordainsarien igoerak arautzen ditu 2020rako, eta, ildo horretan, soldata-igoera finko bat eta ekonomiaren hazkunderari lotutako ehuneko osagarri bat ezartzen ditu.

**IKUSI DIRA.-** EUDELeK egindako gomendioak, 2020rako ordainsari-igoera horiei buruz.

**IKUSI DA.-** 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluko bi atala; hori horrela, Udalbatzari proposatu zaio honako ERABAKI hau hartzeko:

**Lehenengoa.-** 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, udal-langileen ordainsariak %2 igotzea 2020rako, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

**Bigarrena.-** Igotzea, halaber, alkatearen ordainsariak 2020rako, ehuneko berean, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

**Hirugarrena.-** Aipatutako igoerei aplikatu behar zaizkien eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

**Laugarrena.-** Aurrekoaz gainera, barne-produktu gordinaren (BPG) igoera prezio konstanteetan 2019an % 2,5ra iristen bada edo zenbateko hori gaintitzen bada, soldata beste % 1 igoko da, 2020ko uztailaren 1etik aurrerako ondoreekin.

Aipatutako % 2,5 baino gutxiago haziz gero, igoera proportzionalki murriztuko da % 2,5 horri dagokionez egin den murrizketaren arabera. Horrenbestez, igoera orokorrak honako hauek izango lirateke:

% 2,1eko BPG: % 2,20

% 2,2ko BPG: % 2,40

% 2,3ko BPG: % 2,60

% 2,4ko BPG: % 2,80

**Bosgarrena.-** Aipatutako 3. artikuluko bi atalaren azken paragrafoan adierazitakoaren arabera, soldata-masaren % 0,30eko igoera gehigarria baimendu ahal izango da honako neurri hauetarako, besteak beste: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko plan edo proiektuak ezartzeko, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuetako berariazko osagarriak berrikusteko, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko eta pentsio-planei ekarpenak egiteko. Horri dagokionez, legezko igoera





*hori eta hari dagozkion zenbatekoen banaketa onesteko zer lege-mekanismo baliatu daitekeen aztertuko da.*

**Seigarrena.-** Erabakiaren berri ematea sindikatu-ordezkaritari, Kontuhartzailetzari eta Udal Diruzaintzari.

*Arespalditzan.- ALKATEA- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako agiria".*

Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek aldeko irizpena eman zion otsailaren 11 saioan Udalbatzak erabaki hori onesteari, hala badagokio.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du bere taldea ordainsari-igoera horiek aplikatzearen alde dagoela, baina galdetu du era berean aplikatzen zaizkien funtzionarioei eta aldi baterako kontratua duten gainerako langileei.

Erantzun diote ordainsari-igoerak langile guztiei berdin aplikatzen zaizkiela, eta diruz lagunduta ditugun langileen kasuan, gestoriak alta ematen die beren kotizazio-taldeei dagozkien ordainsariekin.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) galdetu du ea orduan langile horiei hitzarmen merkeagoa aplikatzen zaien.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio dagozkien ordainsariekin ematen zaiela alta, baina, nolana ere, gaur egun dauden langileentzako igoeraz ari direla, eta langile horiei berdin-berdin igotzen zaiela.

Udalbatza horren guztiaren jakitun geratu da, eta ohiko bozketa eginda, aho batez erabaki du onestea goian hitzez hitz transkribatutako erabaki-proposamena.

**8.- Gurasotasun-baimenak parekatzeko erabaki-proposamena.-** Gurasotasun-baimena parekatzeari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hain zuzen ere, honako hau:

### **"ERABAKI-PROPOSAMENA**

**AINTZAT HARTU DA.-** Udaleko langileen sindikatu-ordezkariek EUDELEk gurasotasun-baimena parekatzeari buruz eginiko gomendioak igorri dizkigute.

**AINTZAT HARTU DA.-** Gure hurbileko beste erakunde publiko batzuek hartutako erabakiekin bat etorrira, EUDELEk uste du egokia dela Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren bederatzigarren xedapen iragankorrean baimen horretarako jasotako araudia aplikatzeari aurrea hartzea sustatzea, bai eta iraupenari dagokionez 126 egun naturalera (18 aste) handitzea ere. Halatan, legegileak xede duen amatasun-baimenarekin parekatzea lortuko da. Gure kasuan, 126 eguneko da, UDALHITZen Akordio Arautzailearen 54. artikuluan jasotakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatu du:





**LEHENENGOA.-** 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, 126 egun naturalean ezartzea ama biologikoa ez den gurasoaren baimenaren iraupena, jaiotzagatik, adopzioa egiteko zaintzagatik, edo seme-alaba bat hartzeagatik edo adoptatzeagatik. Gertakaria eragiten duen egintzaren ondorengo berehalako sei asteak nahitaez atsedean hartzekoak izango dira. Baimen hori bi aste gehiago luzatuko da guraso bakoitzarentzat semeak edo alabak desgaitasuna badu, eta seme edo alaba bakoitzagatik, bigarren seme-alabatik aurrera, jaiotzagatik, adoptatzeagatik, adopzioa egiteko zaintzagatik edo seme-alaba bat baino gehiago hartzeagatik. Jaiotza-egunetik, adopzioa edo harrera egiteko zaintzaren administrazio-erabakitik edo adopzioa eratzen duten ebazpen judizialek aurrera hartu ahal izango dira egun horiek.

**BIGARRENA.-** Aurreko puntuan ezarritakoarekin kontraesanean ez datorren heinean, ama biologikoa ez den gurasoak jaiotzagatik, adopzioa egiteko zaintzagatik, edo seme-alaba bat hartzeagatik edo adoptatzeagatik dagokion baimena hartzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49.c) artikuluan ezarritako xedapenak hartuko dira kontuan, baina ez dira aplikatuko ondore horietarako lege-arau horren bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako baimena pixkanaka aplikatzeko epeak. Aurrekoa gorabehera, lanaldi irregularra duten langileek, hain zuzen ere, ziklikoki ondoko ondoko hainbat jaieguneko aldiak ziklikoki ezartzen dituzten lan-egutegiak dituztenek, baimena etenik gabe soilik hartu ahal izango dute, bi aste natural osoko gutxieneko aldiak eskatuz, edo proportzionaltasun-printzipioari eusten dioten antzeko formula batzuk baliatuz.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honek beretzat hartzen du Euskadiko Tokiko Erakundeetako Langileen Lan Baldintzen Akordio Arautzailearen (UDALHITZ 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste zeinahi erabaki, itun edo xedapen ere, horien bitartez ama biologikoa ez den gurasoarentzat jaiotzagatik, adopzioa egiteko zaintzagatik, edo seme-alaba bat hartzeagatik edo adoptatzeagatik baimen osagarriak ezartzen badira.

**LAUGARRENA-** Erabakiaren berri ematea sindikatu-ordezkaritari.

Arespalditzan.- **ALKATEA-** Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako agiria".

Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrak aldeko irizpena eman zion otsailaren 11 saioan Udalbatzak erabaki hori onesteari, hala badagokio.

Udalbatza horren guztiaren jakitun geratu da, eta ohiko bozketa eginda, aho batez erabaki du onestea goian hitzez hitz transkribatutako erabaki-proposamena.

**9.- Aiarako "Berbalagun-Gurasolagun" programa dinamizatzeko zerbitzu-kontratua luzatzea, bidezkoa bada.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Udalak EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-AEK enpresarekin sinatutako 2017ko otsailaren 7ko "Aiarako Berbalagun-Gurasolagun programa dinamizatzeko zerbitzu-kontratuaren" bigarren klausulan ezarritakoarekin bat etorrira, kontratuaren iraupena bi urtekoa dela eta gehienez ere beste bi urtez luzatu daitekeela, baldin eta bi aldeek hala erabakitzen badute. Horrenbestez, kontratua luzatzeari buruzko erabakia hartu behar da.

Gai horren aldeko txostena egin zuen Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak 2020ko otsailaren 11n egindako saioan.



Ikusi da kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidezko esleipena arautu zuten klausula ekonomiko, administratibo eta teknikoan agiria. Dokumentu horren bigarren klausulan (II) urtez urte luzatzeko aukera ezartzen da, beste bi (2) urtez gehienez.

Ikusi da Aiarako Kuadrillako Euskara teknikariaren txostena (espedientean sartu da).

Udalbatza jakitun geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketaren bitartez, urtebetez luzatzea Udalak EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-AEK enpresarekin sinatutako 2017ko otsailaren 7ko "Aiarako Berbalagun-Gurasolagun programa dinamizatzeko zerbitzu-kontratua".

**10.- Alkatetza-dekretuen kontu ematea.-** Udalbatzari 2020/22 eta 2020/94 zenbakien arteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta hona hemen, laburtuta, haien edukia:

### **"ALKATETZA-DEKRETUEN ZERRENDA.-"**

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/22. I.S.V.- Arespalditzako etxebizitza batean komuna birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/23. - EDP COMERCIALIZADORA SAU- Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2019ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/24.- Goiener SCoop. - Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2019ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/25.- NED SUMINISTRO GLP SAU - Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2019ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/26. Nortegas Energía Distribución SAU - Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2019ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/27. J.R.I.V.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/28. J.M.B.O.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/29. - M.T.G.L. - Aparkatzeko txartelaren berrikuntza ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/30.- G.G.G. - Menagaraiko abelburuen pabiloiko estalkia konpontzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/31.- Udal-igerilekuetan espazio estalia jartzeko obraren Hondakinen Kudeaketa Plana onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/32.- Udal-igerilekuetan espazio estalia jartzeko obraren Segurtasun eta Osasun Plana onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/33.- BASER COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA SA.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea. 2019ko 2. seihilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/34.- Alday Ongintzako Fundazioa.- Arespalditzako lursail bat urbanizatzeko obraren udal-lizentzia izapidetzeko informazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/35.- Telefónica España SA.- Arespalditzan zuntz optikoa kanalizatzeko obra berriaren EIOZri dagokion likidatzea ezestea.



ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/36. Aiara Valley SL.- Menagarain Garapen Teknologikorako Zentrarako baserria birgaitzeko obrarako hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/37.- Nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzu-kontratua lizitzatzeko espedientea onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/38.- JM.P.S.- Desgaitasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuetarako aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/39.- A.S.M.- Izorian etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/40.- M.E.Z.- Luiaondoko etxebizitza batean zoru flotatzailea jartzeko eta ateak aldatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/41.- MT.G.M.- Murgako etxebizitza batean EITren inskripzioa izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/42.- ASOCIACION SOCIOCULTURAL PEREGAÑA RETES DE LLANTENO ERRETAIAR. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/43.- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN TALDEA. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/44.- Vitoria-Gasteizko Apezpikutzak.- Sokon San Julian Elizaren estalkia birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/45.- L.A.U.- Luiaondoko etxebizitza batean bainuontziaren ordez dutxa jartzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/46.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Luiaondoko gizarte-zentroan plataforma jasotzailea jartzeko obrarako udal-lizentzia izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/47.- Y.G.O.- Maroñoko Urizar auzoa 2-A helbideko etxolaren estalkia birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/48.- F/2019/20 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/49.- BALGORZA SA enpresaren 2. ziurtagiria onestea. Arespalditzako osasun-zentroko irisgarritasuna hobetzeko obrak.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/50.- ZANDESA SA.- Llantenen lurak betetzeko hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/51.- MC.U.M.- Olabazarreko etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/52.- San Lorenzo kalea 20 helbideko etxejabeen elkarteak. Eusko Jaurlaritzako plataforman EITren erregistroa izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/53.- Asfaltados y Construcciones Morga SL.- Luiaondoko Barrena kalean mugikortasuna hobetzeko obra gauzatzeko epea laugarrenez luzatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/54.- Energia dela-eta tokiko jabetza publikoa aprobetxatzeagatik tasa. 2020ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/55.- ITZALDE ABESBATZA.- 2018ko kultura-, kirol- eta



gizarte-arloko laguntzen deialdiaren arabera jasotako dirulaguntzaren zati bat itzultzeko prozedura hasteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/56.- J.I.G.G. TMIZen kuotaren % 100eko hobaria ematea, ibilgailu historiko baten titularrak izateagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/57.- J.J.A.M. TMIZen salbuespena ematea, minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/58.- Amurrioko Jabetzaren Erregistroa.- Aiarako 410 lursaileko 4. poligonoko eraikuntzarekin lotuta eskatutako txostena igortzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/59.- Urruela SC.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txostena onestea eta JSLren espedientearekin jarraitzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/60.-G.R.Z.- Salmantoneko eraikuntzaren estalkia aldatzeko eta birgaitzeko obrarako udal-lizentziaren espedientea amaitzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/61.- J.L.R.H. 2019ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/62.- Udalbatzako kideei ekarpen ekonomikoa egitea. 2020ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/63.- Talde politikoei ekarpen ekonomikoa egitea. 2020ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/64.- 2019ko obrak gauzatzeko gastuak eta teknikarien ordainsariak ordaintzeko administrazio-batzarrei emandako dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea handitzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/65.- Langileen eta alkatearen nominen hileko txostena onestea. 2020ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/66.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgan pilotalekua birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/67.- ASTEKLIMA 2020 proiekturako dirulaguntza-eskaerari buruzko erabakia.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/68.- S.M.LF.- Arespalditzako eraikin bateko hormak eraisteko obrarako lizentzia izapidetzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/69.- F/2019/21 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/70.- EALZren kudeaketagatik ekarpen ekonomikoa egitea. 2019ko abendua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/71.- I.J.V.O.- Arespalditzan horma bat birgaitzeko obrarako lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehiago eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/72.- GAROBEL MENDI TALDEA. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/73.- AMA BIRJINIA ZURIA. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/74.- S.O.M.- Izoriako obrak geldiarazteko agindua eta hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea irekitzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/75.- Etxaurren Ikastola. Talde psikopedagogikoaren eta 2



urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea. 2020ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA -2020/76.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidazio-faktura onestea. 2020ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/77.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.- 2019ko abenduko kuota ordaintzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/78.- AFari egin beharreko ordainketa onestea, IRPF-4/2010 atxikipenari dagokiona.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/79. Zorroza Gestión SL.- Murgako industrialdeko lursailean ibilgailuak sartzeko atea ordezkatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/80.- JP.M.G.- Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea abiaraztea, oker inskribatzeagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/81.- REPSOL COMERCIALIZADORA DE ELECTRICIDAD Y GAS SLU. - 2019ko 4. hiruhilekoan gasa eta elektrizitatea dela-eta jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/82.- J.B.M.- Murgako Markijana auzoko 55-A helbideko etxebizitzan obrak gelditzea agintzea eta hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea hasi dela jakinaraztea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/83.- M.U.G.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungi egin zelako.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/84.- REGSITI COMERCIALIZADORA REGULADA SLU. -2019ko 4. hiruhilekoan gasa eta elektrizitatea dela-eta jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/85.- CLUB DEL JUBILADO Y PENSIONISTA SANTIAGO APOSTOL. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/86.- HONTZURIA ARGAZKI KLUBA. 2019ko dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/87.- GIZALAB.- Izoriako obrak geldiarazteko agintzea eta hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea hasi dela jakinaraztea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/88.- L eta B. T.M.- Salmantongo Etxabe auzoa 11A helbideko etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko informazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/89.- S.O.M.- Izoriako 410 lursaileko 5. poligonoan obrak geldiarazteko agintzea eta hirigintza-ordena lehengoratzeko espedientea hasi dela jakinaraztea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/90.- L eta B.T.M.- Salmantongo Etxabe auzoa 12 helbideko etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko informazio osagarria eskatzea.

ATETZA-DEKRETUA - 2020/91.- Euskara ikasteko dirulaguntzak ematea. 2019ko deialdia.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/92.- F/2020/1 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/93.- Eudel.- 2020ko bazkide-kuota ordaintzea onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/94.- I.P.V. Udalbatzako kideei dieten faktura onestea".





- **Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu)** hitz egin du, eta Udalbatzen dieten fakturak onesteko 2020/94 Dekretuari buruz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Fitur azokara joategatiko gastuak direla, Aiarako Kuadrillak udalerrri bakoitzeko ordezkari bat gonbidatzen duelako. Kostuaren zati bat Aiarako Kuadrillak ordaintzen du, eta beste bat Udalak.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH Bildu) galdetu du azokara bertaratu bakarrik egiten den edo, aldiz, eskualdea sustatzeko ekintzak gauzatzen diren bertan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ekitaldi instituzional bat egiten dela Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin eta standak bisitatzen direla ideiak biltzeko, ondoren turismo-mahaian landu daitezen.

- **José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu)** honako dekretu hauei buruz galdetu du:

- Abelburuen pabiloi baten estalkia konpontzeko lizentzia emateari buruzko 2020/30 Dekretuari dagokionez, galdetu du horretarako jarduera-lizentziarik eskatzen den. Alkate jaunak erantzun dio obra txikia dela eta ez dela jarduera-lizentziarik eskatu behar.

- Udal-igerilekuetan espazio estalia jartzeko obraren Hondakinen Kudeaketa Plana eta Segurtasun eta Osasun Plana onesteari buruzko 2020/31 eta 2020/32 Dekretuei dagokionez, adierazi du urratsak egiten ari direla obra 2019an amaituta egon beharko zukeenean. Adierazi du ez direla lanak atzeratu behar eta galdetu du zer gauzatze-egoeratan dagoen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ez zela obraren lizitazioa gauzatu ez zuelako astirik ematen berau uda aurretik gauzatzeko, eta uda amaitu ondoren hasi zela prozesua.

- Nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzu-kontratuaren lizitaziorako agiriei dagokionez, uste du gutxiengoa izan arren informatuta egon beharko luketela, eta zirriborroan eman zitzaizkien agiri teknikoak aldatu egin zirela gero. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Batzordean azaldu zela aurkeztutako agirien zirriborroa ezin izan zuela berrikusi Idazkaritzak eta agirietan egindako aldaketak araudira egokitzeko egin zirela.

- 2020/53 Alkatetza Dekretuari, Asfaltados y Construcciones Morga SL enpresari Luiaondoko Barrena kalean mugikortasuna hobetzeko obra gauzatzeko epea laugarrenez luzatzeari buruzkoari, dagokionez, galdetu du zergatik ari diren asfaltatzea atzeratzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du astebete daramatela enpresari asfaltatzea erreklamatu, eta gaur Obrako zuzendariak ere gogorarazi diola. Esan diote aste honetan ez dutela egingo, atzeratu egin direla. Gaineratu du bera ere oso gustura egongo litzatekeela obra aspaldi amaituta egongo balitz, baina enpresak ez ditu epeak bete.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du zehapenen bat ezarri ahal izango dela orduan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du atzealdea argiztapenik gabe zegoela eta eskatu zaiela argiztapena eta hiri-altzariak jartzeko. Amaitzeko, esan du enpresari asfaltatzea bukatzeko eskatzen jarraituko diotela.





- Adierazi du ez dakiela zer zentzu duen 2020/64 Alkatetza Dekretuak, 2019ko obrak gauzatzeko gastuak eta teknikarien ordainsariak ordaintzeko administrazio-batzarrei emandako dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea handitzen duenak.

Alkate jaunak erantzun dio dekretu hori eman zela legeak baimendutako babes-neurri guztiak emateko administrazio-batzarrei. Horregatik, eta legeak baimentzen zuelako, administrazio-batzar batzuei faktura ordaindu izana ziurtatzeko epea pixka bat handitzea erabaki zen, ez baitzuten likidezirik dirulaguntzaren baten ordainketa jasotzeko zain zeudelako.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du informatzea bakarrik eskatzen dutela.

**11.- Aztergaien zerrendatik kanpoko gaia.**- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Udalbatzari jakinarazi dio saio honetako aztergaien zerrendan sartu behar dela, urgentziaz, Martxoaren 8ko (Emakumeen Eguna) erakunde-adierazpena, ageriko data-arrazoiengatik.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, gai hori aztergaien zerrendan sartzea, eta, beraz, eztabaidatu eta bozkatzea.

**11.1. Martxoaren 8ko erakunde-adierazpena.**- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Berdintasuneko teknikariak egin duela adierazpena, eta talde politikoei helarazi zaiela ekarpenak egin ditzaten. Ekarpene horiekin testu bakarria egin da; hain zuzen, honako hau:

*"M8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta egindako erakunde-adierazpenaren eredia. 2020*

*Aiarako Udala.*

**EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen indarra**

*1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturean, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.*

*Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.*

*Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzen borrokan, inor atzean utzi gabe. Munduko mugimendu horren ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.***

*Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:*



- *Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;*
- *Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;*
- *Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren parte hartzeko;*
- *Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea; Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea. Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Aiarako Udalak **konpromiso irmoa** adierazi nahi du **berdintasuneko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan**, honako neurri hauek abian jarririk:*
  - *Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko. Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerrri batzuekin elkartuta.*
  - *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, eta haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea. Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.*
  - *Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea.*
  - *Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea. Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.*
  - *Udalerriko emakumeak ahalduntzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzen jarraitzea. Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzen jarraitzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko. Udalerrian hainbat neurri garatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiteko, eta horretarako, baliabide guztiak bermatzea:*
    - *Udal-aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzea, Udalak hartutako konpromisoen bideragarritasun ekonomikoa bermatuz.*
    - *Kontratazio publikoan berdintasun-klausulak eta beste gizarte-klausula batzuk sartzeko arian-ariko plan bat diseinatzea eta abian jartzea.*
    - *Memoria historikoa lantzea, emakumeek udalerrian egin duten eta egiten duten ekarpena ikusgai jartzeko.*
    - *Udalerrian zaintzen errealitatea genero-ikuspegitik aztertzea eta hobekuntza-neurriak abian jartzea; besteak beste, honako hauek bilduz:*
      - *Etxeko Laguntza Zerbitzua zer egoeratan eskaintzen den aztertzea eta berau eskaintzeko lan-baldintzak duintzeko neurriak proposatzea eta abian jartzea.*
      - *Familia-arloan egindako zaintzen egoera zein den (haurrena eta mendekoena) aztertzea, eta gabeziak, estali gabeko premiak eta hobekuntza-arloak*



*identifikatzea eta horiei aurre egiteko ekintzak abian jartzea, adibidez:*

- *Udal-espazioak zaintzekin lotutako erabileretarako egokitzea.*
  - *Zaintzetako langileak kontratatzeke informazioa ematea.*
  - *Zaintzak behar dituzten edo eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak erraztea.*
  - *Sentsibilizazio-ekintzak egitea nagusiki emakumeek egiten duten zaintzalanari balioa emateko, eta kontzientziazio-ekintzak egitea gizonen beharrezko erantzunkidetasunari buruz.*
  - *Zaintzen rolekin lotutako ahalduntze-jarduerak abian jartzea emakumeentzat.*
  - *Gazteekin berdintasunezko rolei buruzko hezkuntza- eta ahalduntze-jarduerak bultzatzea.*
- *Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin –[Berdinsarea](#)– lanean jarraitzea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuek elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.*

*Azkenean, Aiarako Udalak dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren karietara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten".*

Udalbatza jakitun geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, Aiarako Udalak martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta egindako erakunde-adierazpena onestea.

## **12.- Eskakerak eta galderak.-**

**Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ)** honako hauek esan ditu:

- Tramame y Remai SA enpresari dagokionez, galdetu du ea han dauden hondakinak hustu behar dituzten, piloak baitituzte oraindik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak erantzun du Eusko Jaurlaritzak izapidetutako espedientearen barruan hondakinak kendu behar zituztela adierazten zela. Enpresak hori egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzak bestelako bitartekoak aurkitu beharko ditu subsidiarioki betearazteko.

- Zinegotziak Osasun Planaren hasierari buruz galdetu du. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du laguntza eskatu zaiola Gorobel Mendilerroari aholkatzen duen teknikariari, agiri teknikoak egiteko eta lizitaziora ateratzeko errepikakorrak izateagatik kontratu txiki baten xede izan ezin diren osasun-planaren zatiak. Planaren dokumentu bakar hori Abereri enkargatu zaio jada. Adierazi du, Abereren arabera, plana aurten egin eta martxan jarriko dela. Ermandade bat deituko da laster.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du galdera hori egin duela Ordenantzan nahiz Osasun Planean esan zelako datorren urterako izango zirela. Ziurtatu egin nahi zuen.



José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) galdetu du Osasun Plana zezenik gabe planteatuko den.

Alkate jaunak erantzun dio horrela bozkatu zela Aiarako Lehen Sektorearen Batzordean eta Ermandadean.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) eskualdeko garraioari buruz emango zen informazioari buruz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du datuak ekarriko direla Batzordearen hurrengo saiorako. Adierazi du atzo bilera bat egin zela Foru Aldundian gai horri buruz. Administrazio-batzarren eskaera asko onartzen direla adierazi digute eta garraioa etxebizitzaren kokapenera egokitzea malgutuko dela. Gainera, esan du gaur goizean deitu diola zuzendariari, Artziniegako zatia esleitu gabe dagoelako oraindik eta premiazkoa delako irtenbide bat aurkitzea. Gehitu du eskola-garraioa egiten duen taxilariarekin harremanetan jarriko direla, interesatuko balitzaio ere. Adierazi du bilera formal bat eskatuko duela agian diputatuarekin; izan ere, uste dute arazoa ekonomikoki abantailatsua ez den esleipen bat indibidualizatzea dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du, administrazio-batzar baten buru gisa, informazioa iritsi zaiola; hain zuzen, eremuan jarduten duten garraioideei buruzko azterketa global bat egingo dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du gaia Batzordearen hurrengo bilerara eramango dela, informazio gehiago lortu ahal izateko.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du hobe litzatekeela Udalean inkesta bat egitea, atez ate, beharrezkoa den garraio motari buruz. Gainera, uste du hobe litzatekeela beharizanen azterketa erreal bat egitea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du izan zuten bileran aipatu zutela egindako ekarpen gehienak kontuan hartu zirela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du kontua ez datzala soilik administrazio-batzarren buruen iritzian, baizik eta, kostu txikiagatik, beharizanen argazki erreal bat emango duen azterketa bat egin daitekeela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du eskaerapeko garraioaren arlo horretan errealitatea oso aldakorra dela, ez delako autobus-linea bat; aitzitik, aurrez erreserba eginda beharizanen arabera eskaintzen den garraio bat da. Horregatik deitzen zaio "eskaerapekoa", eta beharizan errealei erantzuteko modu onena da. Gainera, deitzeko aukerak malgutasun handia ematen dio zerbitzuari.

**Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu)** honako hauek esan ditu:

- Udalerrian zuntz optikoa hedatzeari dagokionez, teknikari bat agertzeko eskatu dute udalerriko biztanle guztiei azaltzeko prozesuaren garapena.



Alkate jaunak erantzun dio hilaren 19an agiri bat bidali zela kontzejuen egoera zer-nolakoa den azaltzeko eta Batzordearen hurrengo bilerara eramango dela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) errepikatu du egiteke geratzen dena nola egingo den azaltzeko teknikariak etortzea nahi dutela.

- Menoion jarritako dorreak zer udalerriri ematen dien zerbitzua galdetu du, zer zerbitzu eskaintzen dituen, etxeetatik zer distantziara dagoen, ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik baduen... Hala ere, gehitu du informazio hori idatziz ere eskatuko duela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du arazorik gabe eska dezakeela informazioa idatziz eta erantzungo zaiola.

**José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu)** honako hauek esan ditu:

- Eskatu du Ingurumeneko teknikariaren txostena helarazteko Zorroza enpresari buruz; aspaldi eskatu zuen. Gaineratu du ez dela lixibiatuei buruzko azterlanik egin.

Alkate jaunak erantzun dio Kuadrillako Ingurumeneko teknikariak atzo edo gaur bertan igo duela espedienteen kudeatzailerara, eta kopia bat helaraziko zaiola.

Alkate jaunak adierazi du uste duela osoko bilkuran esan zela arazoak izan zirela nabean sartzeko, enpresariaren mesfidantzagatik, eta orain arte, Ertzaintza bertan zela, sartzen utzi du. Adierazi du udal-teknikariak instalazioak barrutik ikusi behar zituela

- Ustelkeria pertsegitzeko beharrezko erakunde-tresna independenteak sortu eta abiarazteko EH Bilduren mozioari dagokionez, José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) ohar bat egin nahi du.

Adierazi du ez dagoela inola ere Ertzaintzaren aurka; aitzitik, baliabide gehiago eskatzen dituzte, bai ekonomikoak eta informatikoak, bai pertsonalak.

Alkate jaunak adierazi du ez dakiela Ertzaintzaren talde horrek baliabide gehiago behar dituen.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du maiatzean bi obra hauek 2020-2021eko Obra eta Zerbitzuen Foru Planean sartzeko eskatzea adostu zela:
  - Berogailu, UBS eta aireztapen sistema hobetzeko proiektua, Zuhatzako 2 poligonoko 592 lursaila.
  - Erabilera askotarako espazioa egokitzea, Luiaondoko La Torre kaleko 17. zk.

Eta otsailean egonik, jakin nahi du zertan den espediente hori; izan ere, adibidez, Ikastolako obra, egitekotan, udan egin beharko da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du foru planaren bitartez finantzatu daitezkeen obrak direla; horregatik, gaur-gaurkoz ez dakigu Foru Aldundiak zenbateko dirulaguntza emango digun, eta, horregatik, ezin da gauzatzen hasi, finantzaketarik ez duelako. Ezin da lizitaziorik deitu kontratu horretarako aurrekontu-kontsignaziorik izan ezean. Gehitu du atseginez egingo lukeela obra hori, baina gaur-gaurkoz ezinezkoa da horrelako tamainako obra bat egitea Udalaren beraren funtsekin soilik. Adierazi du proiektua eginda dagoela, eta lizitatzea soilik falta dela.



José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du obren gauzatzea beti atzeratzen dela.

**Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV)** azalpen hauek eman ditu José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) aurreko osoko bilkuran egindako bi galderari buruz:

- Osoko bilkuren akta asko argitaratzeke egoteari dagokionez, azkenak martxokoak edo apirilekoak direla.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du kontu hori egiaztatu zuela osoko bilkura amaitu berrian, eta egiaztatu zuen urrira arteko aktak argitaratuta zeudela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) galdetu du zer egunetan zeuden zintzilikatuta.

Alkate jaunak erantzun dio pantaila-argazki bat egin zela osoko bilkuraren biharamunean.

- Sarrera-irteeretan Arespalditzan eta Luliaondon auzoa eta ez herria agertzearen gaia. Alkate jaunak adierazi du hori ez dela egia. Azaldu du erregistro-programak datu horiek datu-base desberdinetatik inportatzen dituela, eta hirugarren bat erregistratzen denean eta datu hori sartzen ez denean ez dela agertzen; horregatik, batzuetan herria agertzen da, eta besteetan ez.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH Bildu) adierazi du batzuetan agertzen dela, eta besteetan ez.

**Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ)** esan du baserrien lokalizatzailak ez duela funtzionatzen.

Alkate jaunak erantzun dio *Geotechnen arazo bat dela eta konpondu egin behar dela.*

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura bukatutzat eman du zortziak eta hemezortzi direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko otsailaren hogeian.

O. E.:  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.